


7. UDALAREN KOMUNIKAZIOA


Amaitzeko, Udalak komunikaziorako erabili dituen lelo ezberdinen ezagutza eta balorazioa eskatu da. Galdetutako lelo bat bera ere ez da iritsi %40ko ezagutza mailara.

Ezagunena egin den leloa "Herri bizia" izan da (%36,8k), eta bigarren lekuan "Ekoaktiboa - Errenteria ingurumena" (%32,2k). Hurrengo hiru leloak inkestatuen laurdenak ere ez ditu ezagunak: "Kirolarekin errenteria aktiboa" (%24,7), "Kultura kreaktiboa" %21,7) eta "Errenteria ADN kreaktiboa" (%20,3).

Balorazioetara pasaz, ondoen baloratu direnak bi izan dira: "kultura kreaktiboa" eta "Ekoaktiboa - errenteria ingurumena" (7,7ko batez bestekoarekin). Puntuazioen banaketari begiratzen badiogu ehunekotan, "Kultura kreaktiboak" babes gehiago duela dirudi (%54,2k 8 eta 10 bitarteko balorazioa ematen dio). Balorazioen arabera mailakatuz emaitzak, ondoren dator "Herri bizia" (7,6ko batez bestekoarekin) eta hirugarren lekuan "Kirolarekin errenteria aktiboa" (7,3ko batez bestekoa). Azken lekuan gelditzen da "Errenteria ADN kreaktiboa" (7,1), eta nabarmena da balorazio positiboenaren ehunekoan duen beherakada (%24,9k soilik puntuatzen du 8 eta 10 bitartean). Hala ere, aipatzekoa da hurrenkera guztia 0,6 puntuko tarte baten baitan gertatzen dela, eta lelo guztiek hamarretik zazpi baino batez besteko altuagoa lortu dutela.

7.1. UDALAK KOMUNIKAZIORAKO ERABILITAKO LELO EZBERDINEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA





Ekoaktiboa- Erreterria ingurumena EZAGUTZA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	88	32,2
Ez	186	67,8
Guztira	274	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Ekoaktiboa- Erreterria ingurumena BALORAZIOA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio ona	61	47,7
Erdipurdiko balorazioa	12	30,3
Balorazio txarra	0	5,5
ED-EE	15	16,6
Guztira	88	100,0
Batez bestekoa	7,7	

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Erreterria ADN kreaktiboa EZAGUTZA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	65	20,3
Ez	256	79,7
Guztira	321	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Erreterria ADN kreaktiboa BALORAZIOA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio ona	35	24,9
Erdipurdiko balorazioa	13	42,9
Balorazio txarra	0	6,6
ED-EE	17	25,6
Guztira	65	100,0
Batez bestekoa	7,1	

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Herri bizia EZAGUTZA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	101	36,8
Ez	173	63,2
Guztira	274	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Herri bizia BALORAZIOA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio ona	66	42,9
Erdipurdiko balorazioa	13	30,6
Balorazio txarra	0	5,1
ED-EE	22	21,4
Guztira	101	100,0
Batez bestekoa	7,6	

Iturria: Aztiker, "Erreterriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kirolariek in errenteria aktiboa EZAGUTZA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	79	24,7
Ez	242	75,3
Guztira	321	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kirolariek in errenteria aktiboa BALORAZIOA**Kultura kreatiboa EZAGUTZA**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	59	21,7
Ez	214	78,3
Guztira	274	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio ona	49	38,1
Erdipurdiko balorazioa	13	30,5
Balorazio txarra	1	10,0
ED-EE	17	21,4
Guztira	79	100,0
Batez bestekoa	7,3	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

Kultura kreatiboa BALORAZIOA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Balorazio ona	46	54,2
Erdipurdiko balorazioa	4	30,0
Balorazio txarra	0	0,0
ED-EE	9	15,8
Guztira	59	100,0
Batez bestekoa	7,7	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako Udal Politiken ezagutza eta balorazio inkesta, 2018."

D. ONDORIOAK

Inkestan zehar jasotako datuak aintzat hartuta, hainbat ideia nabarmendu daitezke ondorio orokor moduan. Jarraian jasotzen ditugu:

Datu soziodemografikoei erreparatuta, Errenteriako egungo errealitate anitza islatzen digu inkesta honek. Erdigunean bizi dira inkesta erantzun duten gehienak, eta bigarren eta hirugarren lekuan aipatuak Galtzarborda eta Beraun dira. Euskara gaitasunari dagokionez, antzeko proportziotan agertzen zaizkigu euskara gaitasun maila guztiak, hau da, elebakarrak, elebidun hartzaileak eta elebidunak. Era berean, norbere eta familiaren jatorriari dagokionez ere adierazgarria da jasotzen den aniztasuna: talderik handienak norbera eta bi gurasoak Euskal Herrian jaiotakoena eta hiruretatik inor Euskal Herrian jaio ez direnak dira.

Herritarren bizitzan eragiten duten arazo nagusiei dagokienez, nahasi egiten dira maila pertsonala eta herri maila; hain justu, gai berak identifikatzen baitira bi kasuetan. Autoarekin eta garraioarekin lotuak daude alde batetik ("aparkaleku falta" eta "trafikoa"), eta bizimoduaren prekarizazioarekin lotutako beste elementu batzuk ("lan merkatua" eta "delinkuentzia eta segurtasun falta"). Alabaina, herriko testuinguru orokorraz egiten den balorazioa, galdetu diren hainbat aspektutan, positiboa da oro har; ez hori bakarrik, azken urteetan hobera egin dutelako ideia da nagusi. Beraz, Errenteriako gaur egungo egoeraz pertzepzio positiboa dagoela esan daiteke.

Are gehiago, pertzepzio positibo hori inkestako erantzun guztietan zehar nahiko presente dago: Udalaren kudeaketari buruzko balorazioan, edota herrian garatu diren proiektu eta zerbitzuak baloratzerako orduan. Galdetu diren gai eta aspektu desberdinen inguruan, ondorio nagusi moduan, iritzi ona jaso da inkestatuen aldetik. Horrek eragin du analisia egiterako orduan ere zorroztea erabiltzen ditugun irizpide metodologikoak, ñabardurak antzemateko: balorazio eskaletan, talde positiboa osatzeko irizpideak estutu egin ditugu.

Hain justu, udalarekiko iritzi negatiborik ez du inkestatuen %68,3k ("arazoak konpontzen ari da" edota "denbora gehiago behar du" adierazten dute). Oposizioari erreparatuta, baloraziorik adierazten ez duten pertsonak alde batera utzita (%37,3), iritziak banatuago daude beste aukeren artean Udalaren kasuan baino.

Galdetu diren gai desberdinen inguruan ere antzerako zerbait gertatzen da. Ohiko samarra den moduan, norbere buruarentzat gai horiek duten garrantzia maila oso altua da (8ko batez bestekoaren inguruan dabil kasu guztietan); alabaina, Udala gai horietan

egiten ari den kudeaketaz galdetuta, 6tik gorakoa da batez bestekoa kasu batean izan ezik beste guztietan ("enplegu eta jarduera ekonomikoaren sustapena" da jarrera kritikoena lortu duen galdegaia, baina bertan ere 5,9koa da batez besteko puntuazioa), eta "gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren" kasuan, 7,3ko balorazioa lortzen du. Antzerakoa da emaitza udal gobernua gai desberdinen inguruan baloratzean, 7aren inguruan kokatzen baitira batez besteko guztiak (6,7tik 6,9ra bitarte), eta balorazio orokorrak 6,8ko batez bestekoa jasotzen du.

Azken urteetan aurrera eraman diren proiektuen inguruan, eta baita Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen inguruan ere, balorazio positiboak izaten jarraitzen du nagusi. Proiektu batek berak ere ez du 5etik beherako baloraziorik jaso batez beste (eta gehienak zazpitik gora kokatzen dira); eta zerbitzuen kasuan, 6,5 eta 7,9 bitartean daude batez besteko guztiak.

Baina, bi kasuetan, kontuan hartzeko aspektu bat nabarmentzen da: ezagutza maila. Hain justu, hiru proiektu ezagunenak kenduta ("Alabergako igogailua", "Lekuona eraikina, sorkuntza fabrika" eta "auzoetako udaltzainen figura", balorazio positiboak eta negatiboak jaso dituztenak hain justu) aipatutako beste proiektu batek berak ere ez du %40ko ezagutzarik lortu. Zerbitzuen kasuan, bi zerbitzu inkestatuen erditsuek ezagutzen dituzte ("haur eta gazteen aisialdiarekin" lotuak eta "euskara ikastekoak"), baina beste biak ia hamarretik zazpi ez dituzte ezagutzen ("ZU! Zure Udala" eta "Gizarte zerbitzuetako larrialdi laguntzak bermatzea"). Beraz, esan daiteke proiektu eta zerbitzu desberdinak ezagutzen dituzten herritarrek balorazio ona egiten dutela beren inguruan, baina hainbat proiektu eta zerbitzu ez dira gehiegi ezagutzen.

Bi eremu espezifikotan eskaintzen diren instalazioen ezagutza, erabilera eta balorazioa ere aztertu dira, kirola eta kultura zehazki. Orain arte aipatutako ondorioen linea berean jarraituta, galdetu diren instalazio guztiek jasotako balorazioa oso ona izan da (batez bestekoak 7 eta 7,9 bitarteko baloreetan gelditu dira). Alabaina, berezitasun moduan, kirolaren eremuko instalazioek izan dute ezagutza mailarik handiena (galdetutako instalazio guztiak inkestatuen hiru laurdenek behintzat ezagutzen dituzte) eta kulturaren desoreka handiagoa dago (%80tik gorako ezagutza maila duten proiektuak batetik, eta inkestatuen herenak ere ezagutzen ez dituztenak bestetik).

Ezagutza eta balorazioaren arteko disonantziarik handiena Udalak azken urteetan erabili dituen leloetan antzeman da. Hain justu, inkestatu guztiei eskatu zaie hainbat lelo baloratzeko -ezagutu ala ez ezagutu- eta oso balorazio positiboak jaso dira, 7,1 eta 7,7 bitarteko batez bestekoekin kasu guztietan. Alabaina, aipatutako lelo horietatik bat bera ere ez du inkestatuen %40k ezagutu (ezagunena "Herri bizia" izan da, %36,8k; eta gutxien ezagutua "Errenteria ADN kreaktibo", %20,3k).

Ondorio orokor moduan, esan daiteke inkestan zehar baloratu diren aldagai guztien inguruan, Errenteriako herritarren artean iritzi positiboa gailentzen dela nabarmen: bai herriko egoeraz oro har, Udal kudeaketaz eta udal gobernuaren ezaugarriez, eta aipatu zaizkien hainbat proiektu, instalazio eta zerbitzuz. Alabaina, balorazio positibo horri beste elementu bat gehitu behar zaio, kontuan hartzekoa dena: hain justu, elementu horiek guztiek duten irismena. Hori, inkestan zehar, ezagutza-mailaren arabera neurtu da. Eta ezagutzaren zifrak ez dira balorazioarenak bezain altuak. Horren argitan, etorkizunerako hainbat indargune eta erronka ikusten dira Errenteriako udal politiken gain.